2024KO ABUZTUA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO **HITZA**

# *Gernikako Jaiak*

- San Lorentzo
- Andra Mari eta San Roke
- San Bartolome






Gestoria
COR
Aholkularitza
Iparragirre, 8
GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 06 33
gestoria@gestoriacor.com
www.gestoriacor.com

EXCLUSIVAS
EG
GERNIKA
Goikoibarra, 29
153 postakutxa
GERNIKA-LUMO
94-625 33 00 / 94-625 30 16







**EGITARAUA**

**Abuztuak 9, barikua**
**20:00.** Txupinazoa eta pintxo poteoa, auzotik.

**Abuztuak 10, zapatua, San Lorentzo Eguna**
**09:30.** Lagun arteko mendi martxa.
**Ostean.** Luntxa.
**12:00.** Meza Nagusia.
**Ostean.** Kopaua.
**12:00.** Tortilla eta gilda txapelketa. Izen ematea 12:00ak arte.
**13:00.** Erregelak eta dantzak, Elai Alai taldearen eskutik.
**13:45.** Tortilla eta gilden aurkezpena.
**15:15.** Tortilla eta Gilda txapelketen sari banaketa.
**17:00.** Gazta jolasa, pisua igarri txosnan. Aldi berean, garbantzu jolasa, kopurua igarri, txosnan.
**17:00.** Zurezku egurrezko jolasak.
**19:00.** Samasku fanfarrea, auzoa girotzen.
**19:30.** Buruhandiak eta txokolatada.
**22:00.** Musika gaua: The Uski's eta Esne Beltza.
**Ostean.** Zirkinik bez erromeria.
**Amaitzeko.** DJ Elepunto.

**Abuztuak 11, domeka, San Lorentzotxu Eguna**
**12:30.** Meza Nagusia, Lurgorriko baselizan.
**14:30.** Herri bazkaria, Lopategiren bertso eskolak alaituta.
**16:00.** XIV. Mus arin txapelketa. Izen ematea 15:30ak arte, txosnan, 20 euro.
**16:30.** Pernilla jolasa, altuera igarri, txosnan.
**17:00.** Mariatxiak: Azteca taldea.
**17:00.** Apar jaia eta puzgarriak, parkean, Urdaibai eskolaren eskutik.
**17:30.** Gotx elektrotxaranga, auzoan zehar.
**18:00.** Piratak Herri Kirol Klubaren eskutik, herri kirol erakustaldia. Parte hartzeko aukera egongo da.
**19:00.** Valle la yuma akademiaren eskutik, salsa mugikorra.
**20:00.** Berbalagunen eskutik, irrintzi poteoa eta lehiaketa.
**21:30.** Bertso saioa: Onintza Enbeita, Aitor Etxebarriazarraga, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.
**Ondoren.** Kontzertuak: Apokhalipsis eta Erreten.

# Berritasunak eta betiko ekintzak elkartuz

● **Aurten egun bat gehiago izango dute Lurgorriko jaiek: abuztuaren 9an hasi eta 11n amaituko dira.**

● **Domekako bertso saioaren ostean herriko taldeen kontzertuak egongo dira.**

Jai gogoz eta gosez daude Lurgorriko auzotarrak, eta jaiak ondo asetuta amaituko dituzte aurtengoan ere. Berritasun eta aldaketa ugarirekin datoz jai batzordeko kideak, eta horietatik batek eragin nabarmena izango du jaietan: aurten egun bat gehiago izango dute. Normalean abuztuaren 10ean eta 11n izan ohi diren arren, aurten abuztuaren 9an hasiko dituzte jaiak.

Hala, txupinazoagaz eta pintxo poteagaz emango diete hasiera. Barikua lagun artean pasa ostean, jaietako egun handia helduko da: zapatua. Mendi martxagaz hasiko dute eguna; normalean 11n egiten duten arren, antolatzaileek uste dute domeka izaten denez, jende gutxiago joateko arriskua dagoela. Hori horrela, 09:30ean hasiko dute mendi martxa zapatuan.

Tortilla eta gilda txapelketen zain egoten dira auzotar asko, eta 12:00etan edukiko dute horretarako hitzordua. Iaz 110 tortillatik gora aurkeztu ziren —ordura arteko parte hartze handiena—, eta aurten ere, hala izatea espero dute. Gainera, sari berri bat emango dute: «Kuadrilla garbienari emango diogu saria. Lurrean zikinkeria, olioa... geratzen dira, eta pentsatu dugu garbi mantentzeko eta jendea garbia izatera animatzeko modu polita dela».

Hori horrela, Elai Alai taldearen emanaldiaren ostean aurkeztu beharko dituzte euren jakiak, eta 15:15 inguruan jakinaraziko dituzte irabazleak. Ostean, «urteroko ekintzek» hartuko dute protagonismoa, «ondo» funtzionatzen baitute.

### Jaia, luzeagoa

San Lorentzotxu Egunean ere, hainbat izango dira aldaketak, baina bi izango dira nabarmenenak: herri bazkariaren osteko bertso saioa eta mariatxiak, eta gaueko bertsolarien osteko kontzertuak. Izan ere, zalantzarik barik, musika gauagaz eta tortilla txapelketagaz batera, 14:30ean egingo duten herri bazkariak elkartzen du jende gehien; aurten ere, 150 lagunetik gora izatea espero dute. Hori horrela, paella jan ostean ez dute aspertzeko astirik edukiko: Lopategiren bertso eskolak eta Azteca mariatxi taldeek girotuko dute unea.

Arratsaldean, beste hainbat ekintzaren ostean, Gotx Elektrotxaranga ibiliko da kaleetan: «Iaz ezin izan genuen elektrotxarangarik ekarri, eta aurten Gotx etorriko da». Musika eta dantzagaz jarraituz, 19:00etan salsa mugikorra eskainiko dute Valle la yuma akademiako kideek, eta ostean, irrintzi poteoa eta lehiaketa egongo dira.

21:30ean, berriz, ia tradizio bihurtu den bertso saioa egongo da, eta ostean, herriko gazteek hartuko dute protagonismoa. Eurei ere tokia egin, eta jaia luzatze aldera, Apokhalipsis eta Erreten taldeek kontzertuak eskainiko dituzte; lehenengoek, bertsioak joko dituzte, eta bigarrenak, ostera, rock estiloko abestiak joko dituzte. Hala, herriko taldeen musikagaz amaituko dituzte jaiak auzotarrek.

### Erasoen aurkako protokoloa

Iazko antzera, aurtengoan ere erasoen aurkako protokoloa egongo da martxan Lurgorriko jaietan. Hori horrela, Gernika-Lumoko Udalaren eskutik, bi gizarte hezitzaile egongo dira lanean Gernikako jaietan, eta Lurgorriko jaietan hala izango da.

Era berean, udalerriko emakume taldeek euren protokoloa martxan izango dute San Lorentzo jaietan. Brigada moduan egongo dira bertan, zerbait gertatuko balitz akonpainamendua eskaintzeko: «Eraso matxista, transfobo edo beste edozein motatakoei erantzuteko egongo dira sare feministako kideak».●



Iaz Los Zopilotes Txirriaos taldeak zelaia jendez bete zuen. LURGORRIKO JAI BATZORDEA

Ibilbide luze eta oparoko musikariek hartuko dute Lurgorriko zelaia San Lorentzo Egunean. Eskualdeko The Uski's taldeak emango dio hasiera gauari, eta ostean, Esne Beltzakoen txanda izango da, agur biran Gernika-Lumon geldialdia eginez.

# Kostaldeko rocka eta trikiti doinuak, oholtzara

Musika Gaua da Lurgorriko jaietan jende gehien elkartzen den unea, eta aurtengoan ere hala izango dela ziurtatu dezakete jai batzordeko kideek. Ibilbide luzea duten bi talde igoko dira oholtzara, euren lanak plazaratzera. The Uski's-en rock surf doinuek eta Esne Beltzaren trikiti soinu berezi horiek beteko dituzte kaleak.

Eskualdeko taldea arduratuko da Musika Gauari hasiera emateaz. Euren azken albuma, *The Uski's*, 2015ean argitaratu bazuten ere, kontzertuak ematen dabiltza han-hemenka. Azken albumeko abestiez gain, euren musika ibilbideko rock surf estiloko abesti klasikoekin zipriztinduko dituzte ikus-entzuleak.

Jarraian, gelditzeko astirik barik, Euskal Herriko beste izen handiko talde batek hartuko du oholtza. Japonetik heldu berri, Esne Beltzak *Esne Bidea* euren azken diskoko doinuak eroango ditu Lurgorrira, Xabi Solanoren gidaritzapean. Euren azken biraren baitan emango dute kontzertua, izan ere, Esne Beltzak bere ibilbidea amaituko du 2025ean.

Kontzertuak amaitu arren, musikak ez du etenik izango. Esne Beltzaren erreleboa Zirkinik Bez erromeriak hartuko du, eta ostean, DJ Elepuntoren txanda izango da. ●



The Uski's taldeko kideak. THE USKI'S



Esne Beltzako kideak uztaileko kontzertu batean. GAIZKA PEÑAFIEL

E
OPTIKA EGUREN
1966tik
EGUREN OPTIKA
Domingo Bernaola Plaza,1
94-625 03 23 / 94-625 04 51
GERNIKA-LUMO
688 77 24 03
Eskariak watsappez egiteko aukera
Ondo ibili jaietan!




MAIER
Ondo pasa jaietan

RENAULT
EKIN AUTOAK GERNIKA
DACIA
EURO REPAR CAR SERVICE
BIZKARGI AUTOAK GERNIKA
TOYOTA
AMUNAGA 4, GERNIKA / 94 627 02 69 / www.ekinautoak.com

GERNIKA GARBIKETAK
1990etik zurekin!
Garbiketa eta mantenua
ALFONBREN GARBIKETA
Jaso eta eraman DOHAINIK!
- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketak
- Garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Lurzoruen garbiketak eta tratamenduak
- Garbiketa bereziak
Goiko Ibarra, 33
C Pabilioia
GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 02 28
608 878 542
faxa: 94-627 02 48
bulego@gernikagarbiketak.com
www.gernikagarbiketak.com

Txosnak jende esperoan daude. Txosnagunea aniztasunetik eraiki dute, eta anitza izango den topagunea bilakatu gura dute. Aurten ez da Txosna Egunik izango, baina herritarrei parte hartzeko deia egin diete, horien presentzia indartzeko.

# Aniztasuna oinarrian



Iaz txosnagunea jendez bete zein Gernikako jaien egun handienetan. TXOSNA BATZORDEA

Zaila da San Roke eta Andra Mari jaiak Pasealekuan kokatuta egoten diren txosnarik gabe imajinatzea, ohikoa baita lagunekin horietan tragoak hartu, kontzertuak ikusi eta bertako jai giroaz gozatzea. Gernika-Lumoko Txosna Batzordeak urte luzeko borroka bati eutsita lortu zuen txosnak udalerriko erdigunera ekartzea, eta aurten ere gernika-lumotarren topagune izango dira abuztuaren 14tik 18ra bitartean.

Gernikako Txosna Batzordeak «gazteria elkartzeko» proposamen berri bati ekin zion iazko jaietan, lehenengo aldiz egun guztiko egitaraua aurkeztuz. Lehen proba hori «positiboki» baloratu zuten arren, aurten, «zoritxarrez», ezin izango diote jarraipena eman: «Jaiek egun bat gutxiago izango dute, bai Lurgorriko jaiak direlako, bai Bilboko Aste Nagusiagatik, eta ez dago egun hori egokitzeko tartetik». Hala ere, datorren urtean Txosna Eguna berreskuratzea gustatuko litzaiekela aurreratu dute. Datorren urtekoa gainera «berezia» izango litzatekeela azpimarratu dute, txosna batzordeak 30 urte beteko baititu.

Hala ere, batzordeak bere ekarpena egingo dio jaietako egitarauari, San Roke egunerako elektrotxaranga antolatu baitute: «Tabernetatik ibilbidea egingo da, horiei txosnaguneko partaidetza emateko». Ibilbide hori txosnagunean bertan bukatuko dela azaldu dute, bertako egitarauari hasiera emateko.

## Hilabete askotako lana

Inauteriak atzean uzteagaz batera, San Roke eta Andra Mari jaiei begira lanean hasten da txosna batzordea. Eragile ezberdinak elkartu eta helburu amankomun bategaz ekiten diote lanari: «Ahalik eta jai onenak antolatzea». Azaldu dutenez, aurreikuspen gehien eskatzen dutenak kontzertuak izaten dira: «Denbora askoko tarteagaz zarratu behar izaten dira, bestela ez dago kontzertu onik jaietarako». Horiek lortzeko, baina, aurrekontuak begiratu behar izaten dituzte, zailtasunak eragin ditzaketelako: «Badakigu udalak aurrekontu eskasa duela txosnetan egiten den egitaraurako; guk horregaz ahal duguna egiten dugu, eta abuztura arte lanean egoten gara», azaldu dute. Egindako lana bost egun horietan «islatuta» geratzea nahi dute txosna batzordeko kideek: «Aurretik lan asko dago, eta jendeak hori baloratu eta parte hartzea nahi dugu».

Txosna batzordea «gero eta anitzagoa» bihurtzen ari dela azpimarratu dute, udalerriko «iritzi ezberdineko» eragileak bat egiten doazela, alegia. Aurten «pare bat» eragile berri gehitu dira, eta kopuru horrek goranzko joera mantentzea gustatuko litzaieke: «Eragileei dei egiten diegu parte hartzera eta horrelako egunak antolatzeko prestutasuna izatera».

Era berean, eragile guztiak bat datoz Pasealekuan lortu nahi duten giroagaz: txosnagunean giro «segurua, erosoa eta zabala» izatea gura dute. Horretarako, Itaia, Enbata eta Gernikako Sare Feministagaz eraso matxisten aurkako protokoloa landu dute.

## Gazteei deia

Txosna batzordea osatzen duten eragile ezberdinek gazteak txosnagunera hurbiltzeko asmoagaz lan egiten dute, eta beste urte batez, horiei «parte hartzeko deia» egin diete: «Txosnetan txandak egitera zein antolatzen den edozein ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditugu gazteak; bai txosnetan boluntario legez txandak egitera, propaganda egitera... ez du ardura».

Gazteek txosna batzordearekiko duten «inplikazioa sustatu» nahi dute, eta horiek txosnetan duten partaidetza gauera mugatu beharrean, jolasetan eta eguneko egitarauetan ere ikustea. Horregatik, interesa dutenei beraiekin harremanetan jartzeko deia egin diete, bai Instagram bidez (*@gernikekotxosnak*), bai idatziz. ●

## Urdaibaiko fauna eta floraz mozorrotzeko eskatu diete herritarrei

San Roketxu egunari begira, Gernikako Txosna Batzordetik iaz hasitako bideari jarraipena eman eta mozorrotzeko gai bat proposatzea erabaki dute. Iaz, Pasealekua marrazki bizidunez betetzea izan zuten helburu batzordekideek; aurten, berriz, Urdaibaiko fauna eta flora da herritarrei aurkeztu dieten mozorrotzeko gaia.

Txosna batzordetik adierazi dutenez, «pil-pilean» dagoen gaia dela iruditzen zaielako aukeratu dute, «besteak beste Guggenheim Urdaibai proiektuaren inguruan gertatzen ari den guztiagatik». Kartelean ikusten da biosfera erreserban «espezie ezberdin asko» daudela, baita Busturialdean «hori baimentzen duen fauna» dagoela ere. Hala ere, antolatzaileek esan dute gaia «bakoitzaren interpretaziora» zabaldu nahi izan dutela. ●



# Abuztuaren 10etik 18ra aktibatuko dute erasoen aurkako protokoloa

- Txosna Batzordearen aterkipean prestatu dute Itaiak, Enbatak eta Sare Feministak.
- Jai eremu «segurua» bermatzeko, brigadetan ibiliko dira.
- Udalak ere barne protokoloa dauka.



Erasoen aurkako protokoloa prestatu duten emakume taldeetako kideak. HITZA

2016az geroztik, ohitura den moduan, eraso matxisten aurkako protokoloa aktibatuko dute Gernika-Lumoko jaietan. Lurgorriko jaiekin hasi eta Andra Mari eta San Roke jaiak amaitu arte egongo da martxan, abuztuaren 10etik hilaren 18ra bitartean, hain zuzen ere. Udalak barne protokoloa idatzi du jaietako erasoei erantzuteko, eta Txosna batzordearen aterkipean, Itaiak, Enbatak eta Gernikako Sare Feministak ere protokoloa ondu dute, eta norbanako emakumeak ere gonbidatu dituzte parte hartzera.

Orain arte funtzionatu izan duena mantendu egingo dute emakume taldeek. Modu horretan, 24 orduko arreta zerbitzua eskainiko duen tefonoa egongo da martxan. Izan ere, erasotua izan daitekeen emakumeak segidan nora deitu edukitzeko bitarteko bat sortua zuten, eta sorreran egin moduan, argi dute hori beharrezkoa dela: «Salaketa bat aktibatzeko bitartekoa da». Horrez gain, telefonoak momentuan esku hartzeko balio die, erasotzaileak atzemateko eta kanporatzeko.

## Profesionalen laguntza

Aurton, erasoa jasan dutenek nora joan izan dezaten, udalak jarriko du erreferentziazko leku bat. Puntu more bat ezarriko dute San Lorentzo zein Andra Mari eta San Roke jaietako eraso matxisten inguruan sentsibilizatzeko, informazioa emateko eta horiei erantzuteko: «Helburu nagusia da premiaz jardutea eta arreta pertsonala, jarraitua, espezializatua, integrala eta koordinatua ematea, genero indarkeriaren biktima direnei». Abuztuaren 10ean eta hilaren 14tik 17ra bitartean jarriko du informazio gunea: «Udalak informazio gune bat jarriko du karpa batean, eraso matxistei aurre egiteko. Emakumeak eta LGTBI kolektiboko pertsonak elkartzeko eta laguntzeko gunera joan ahal izango dira, eta genero indarkeriaren arloan esperientzia duten psikologoek artatuko dituzte. Ekimenaren helburua da komunitatea indarkeria matxistaren eta LGTBIren aurkako borrokan inplikatzea, erasoen aurrean behar bezala jarduteko funtsezko informazioa emanez. Biktimak edozein jazarpen mota salatzea erabakitzen badu, protokolo espezifiko bat aplikatzeko gaitasuna duten langileek emango diote arreta».

Horrez gain, Bidebusaren gaueko zerbitzua jarriko du martxan udalak, abuztuaren 14tik 17ra bitartean, 22:00etatik 06:00ra arteko ordutegian. Eskariz gelditzeko aukera ere eskainiko zaie, bereziki emakumeei, «gauez bakarrik ibiliz ibilbideak laburtzeko».

## Erasoei aurre hartu

Horiek horrela, erasoei aurre hartzeko protokoloa prestatu dute emakume taldeek, eta brigadak antolatu dituzte Itaiako, Enbatako eta sare feministakoek: «Guretzat ona da profesionalak lan horretan aritzea, eta beharrezkoa da, jaietan eraso asko ematen direlako, normalean baino gehiago. Hala, udalak arreta profesionalizatua jarriko duenez, egoera horren aurrean, erabaki dugu brigadetan antolatzea». Ze, hori bakarrik eginda, zerbitzua «hankamotz» geratzen dela uste dute, horrek ez duelako bermatzen erasoak ez gertatzea. «Azken finean, puntu more hori erasotuak izan diren emakumeei arreta emateko da. Baina erasotzaileak libre geratzen dira». Horregatik elkartu dira emakumeen taldeak. «Guk uste dugu lan hori herritik egin behar dela, eta ondo dagoela herriak berak horretarako iniziatiba hartzea», azaldu dute.

> **613 84 96 22**
>
> **24 ORDUKO ARRETA**
>
> Erasoak jakinarazteko edota salatzeko telefono zenbakia 24 orduz egongo da erabilgarri, hilaren 10etik 18ra. Deitzen duenak laguntza, babesa eta informazioa jasoko du: salaketa bat jartzeko zer behar duen, Osakidetzara edo ospitalera badoa zer eskatuko dioten, zer egingo dioten...

Brigadetan aritzeak «eremu zabalago bat hartzeko» balioko diela gehitu dute, txosnagunean egoteaz gain, tabernen kaleetara ere joan ahalko direlako. Hala, laguntza behar dutenei laguntzeko aukera izango dute dauden lekuan daudela, eta herritarrentzat ere errazagoa izango da eurengana hurbiltzea. «Lehen harrerarako lekuan egon arren, brigadetan ari garenean norbait gerturatuz gero, lagundu egingo diogu. Adi ibiliko gara zeozer ikusiz gero, lehenengo harrera hori eskaintzeko».

Eraso bat gertatzean erantzutea izango da euren lana, baita erasotzailea gune horretatik kanporatzea ere. Salaketa soziala momentuan bertan egingo dutela aurreratu dute, eta hurrengo egunean ere kalera aterako dira, «eraso matxisten aurkako jarrera erakustera».

Protokoloa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, Txosna Batzordea eta ostalariak konplize dituzte emakumeen talde eragileek, eta denen artean lanketa sendotzen jarraitzen dute. «Txosnetan arduradun bat egoten da, eta badaki zer egin. Tabernariei ere eskatzen diegu zerbitzari berriei protokoloa azaltzeko. Elkarlana funtsezkoa da», azpimarratu dute eragileek.

## Leku segurua

Erasoei erantzuteko protokoloa zehaztu arren, erasorik ez egotea eta jaien eremua leku «segurua» izatea bermatu gura dute. «Lekua segurua izatea da gure asmoa, eta protokoloa beharrezkoa da horretarako», diote. Baina, leku segurua izan ezean, zer egin? Galdera horri buruz ere asko hausnartu dute, eta lanketa sakona egin dute. Aurreko urteetako erantzun bat emateko oinarriez gain, beste neurri batzuk ere landu dituzte. Esaterako, iaz jaia gelditu zuten zenbaitetan, eraso bat baino gehiago egon zirelako, eta aurten ere hori egin edo ez aztertzen aritu dira. «Hori ere erasoen aurkako edo erasoak saihesteko lanketa bat da. Jendeari jakinarazi egin behar zaio eraso bat egon dela. Asko baloratu beharko dugu erasoren bat, bi edo gehiago ematen direnean, zein den dagoen giroa, jendeak zelan erantzuten duen, adi badago, edo errespetua nabaritzen den», nabarmendu dute.

Erasoei erantzunak eman beharrean, horiek ekiditzea bilatu gura dute, eta horretarako «ezinbestekoa da» jendearen inplikazioa: «Jendea inplikatzea garrantzitsua da gune seguruak bermatzeko. Jendea kontzientziatu beharra dago edozein motatako erasoak saihesteko».

Emakumeen taldeak «lehen lerroan» ariko dira, brigadetan, horiek ez mistoak izango direlako, baina, orokorrean, emakume zein gizonezkoei dei egin diete leku seguruak sortzen laguntzeko: «Denon artean eraiki behar izaten dira leku seguruak, elkar zaindu behar dugu. Ez da zerbait gertatu ostean bakarrik batu behar, denok daukagu ardura».

Bide luze bat dago egiteko, baina protokoloak duen erantzunagaz pozik daude eragileak, identifikatu egiten dituztelako eta urtero jende gehiago gerturatzen delako eurengana. ●

TANDEM
ELEKTRONIKA
TDT eta antena parabolikoak, atezain automatikoak eta bideo-atezainak. Instalazioa, erreparazioa eta mantentzea.
627 260 434
tandemgernika@gmail.com
Gernika-Lumo

# «Mendi taldeak aitortza hau jasotzeak asko pozten gaitu»

**GOI ZALE MENDI TALDEA**
Pregoilaria



GOI ZALE MENDI TALDEA

Mendia, euskara, lagunartea... Hori da Goi Zale Mendi Taldea. Urtean zehar hamaika jarduera egiten dituzte herritarrei zein herrira zabalduta, eta pregoilari izateagatik «pozarren» daude taldekideak.

Goi Zale Mendi Taldeak bost hamarkadatik gora daramatza errotuta udalerrian, urtero-urtero hainbat jarduera egiten. Pregoilari izatea taldearen jarduerari eta ibilbideari aitortza egitea dela deritze taldekideek. «Goi Zalerentzat gauza handia da. Uste dugu mendi taldearenganako aitortza bat dela, eta asko pozten gaitu aitortza hori jasotzeak. 50. urteurrenean Astran egindako jaialdiak herrian oihartzuna izan zuen, jendea hurbiltzeko zabalkunde handia egin genuen, eta belaunaldi desberdinetako jende asko bildu zen. 50. urteurrena data inportantea da. Azkenengo urteetan gainbehera batzuk izan ditugu elkartean, baina aurrera egiteko asmoa dago. Horren aldeko apustua egin dugu».

Pregoilari izatea ez zuten espero, eta «poztasun handiz» hartu dute. Egun direnak eta izan direnak gogoan dituzte, eta abuztuaren 14an ere horrela izatea gura dute. «Batez ere sorreratik egon diren hainbat eta hainbat pertsonekin akordatu gara, eta gure asmoa da, orain gaudenokin batera, lehenago egondakoak ere pregoilari izatea, presente edukitzea. Batzuek, beste modu batera bada ere, taldean segitzen dute; egun mendira igo ezin badira ere, honen guztiaren parte dira, eta eurengatik gaude gu hemen». Belaunaldiz belaunaldi, jende asko eta asko pasatu da Goi Zaletik. Izan ere, ez da zertan jarduera guztietan parte hartu behar, ezta bazkide izan ere, deialdi zabalak egiten dituztelako. Beraz, pregoian «denen izenean hitz egingo» dute.

1973an sortu zuten Goi Zale Mendi Taldea, baina aurretik ere hainbat talde izan ziren, egungo taldearen «haziak edo ernamuinak», eta horietan ibilitako batzuk aritu ziren Goi Zaleren sorreran. «Hasiera-hasieratik» emakumeek presentzia oso garrantzitsua izan dute taldean. Mendia, euskara, lagunartea... hori da Goi Zale, eta pregoiaren mezua edo menua ere osagai horiekin prestatuko dute: «Horiek kontuan edukiko ditugu, eta batez ere, lagunartea; lagun piloa egin ditugu hemen. Mendiaren aitzakiarekin lagunarteko bat da Goi Zale, euskara oso presente daukana. Gaudenok ez gara kuadrilla berekoak, eta belaunaldi desberdinen arteko harremana berez etorri den zerbait da».

Hala ere, errelebo falta da euren kezka nagusietakoa; txanda edo belaunaldi aldaketa hori etorriko ote den edo zelan etorriko den ez daukate argi. «Belaunaldi aldaketarik ez dago. Gazteenok 50 urte bueltan gaude. Uste dugu mendian ohiturak aldatu direla, eta oso orokorra dela elkarte askotan. Gazteagoak beste modu batera moldatzen eta mugitzen dira. Hemen taldean joateak dauka garrantzia, eta taldera moldatu behar da. Ordutegi bat daukagu, jatorduak elkarrekin egiten ditugu... hori da talde funtzionamendua». Taldean ibiltzearen abantailak azpimarratu dituzte, «aberasgarria» delako: «Abantaila handiak ditu, adibidez, autobusez joaten garenez, lekua batean

«Jende asko pasatu da taldetik; eurengatik gaude gu hemen, eta denen izenean hitz egingo dugu»

«Eskualdeko herri txiki askotan antolatzen dira mendi irteerak jaietan, eta gauza polita da; jaiak hori ere badira»

hasi eta amaierakoan autobusak itxaroten gaitu. Norbere ibilgailuan joanez gero, hori ezinezkoa da, ibilbide zirkularra egin behar da. Taldean mugitzea eta lagunak egitea aberasgarria da». Asteburuko irteerak «oso politak» izaten dira, eta azken urteetan umeekin joateko txangoak zein asteburuko irteerak antolatzen dabiltza, «pixka bat moldatzeko, eta guraso direnak erakartzeko». Herrira zabaldutako jarduerak dira: «Pentsatu nahi dugu herriak badaukala Goi Zaleren berri, taldea ezaguna dela. Alde batetik edo bestetik, jende askok eduki du eta dauka harremana taldeagaz».

Urteko egutegia osatzen dute, eta askotariko jarduerak eta irteerak egiten dituzte. Han eta hemen ibiltzen dira, pausoz pauso eta eskuz esku. Hilean behin irteera bat antolatzen dute, eta urtean behin, Alemaniako eta Italiako mendi talde banagaz elkartzen dira. «2005ean egin zen Bakearen Bidea, Pforzheimetik Gernikara. Horretan, ibilbide osoa egin zuenetako bat izan zen Fernando Artetxe Goi Zaleko kidea». Ordutik, urtero biltzen dira Pforzheimeko eta Vicenzako taldeetakoekin, astebeteko egonaldian. «Txandaka egiten da, Alemanian, Italian eta Euskal Herrian edo Espainian. Iaz Izaban egon ginen, eta aurten Apeninoetan. Jarduera polita da». Taldekideek esan bezala, «nahikoa arrakastagaz» egiten den jarduera da, eta datorren urtean 20. urtemuga ospatuko dute. «Horrek erakusten du Goi Zale ez dela tokikoa bakarrik, Europa mailan ere bere arrastoa uzten duen taldea da». Bi talde horien aldean «txikia» da, horiek aurrekontu handiagoak eta bazkide gehiago dituzte, Gernika-Lumogaz konparatuta, herriak ere «oso handiak» baitira: «Eta gu gure txikitasunean hor gaude, eta uste dugu jarduera horretan nahikoa zentralitate hartzen dugula».

Urtean zehar egiten dituzten irteeretarako deialdi zabalak luzatzen dituzte, «herriarentzako jarduerak» egiten dituzte eta edozein da «ondo etorria». Ez da klub itxia, eta hurbiltzen direnak «pozez hartzen» dituzte: «Guretzat altxorra da etortzen den pertsona bakoitza». Gernika-Lumoko mendi taldea bada ere, inguruko herrietakoak dira asko, eta badira eskualdetik kanpokoak diren bazkideak ere. Gaur egun, 250 bazkide inguru dira taldean, eta 180 bat federatu. Hain zuzen ere, mendi taldearen bitartez federatzeko aukera ematen dute: «Federatzeko mendi talde baten bitartez egin behar da, eta zerbitzu hori asko erabiltzen du jendeak». Gainera, materialen eta bibliografien —liburuak, mapak...— mailegua ere eskaintzen dute. Bestalde, urtero topaketak antolatzen dituzte, azaro bueltan; mendiagaz zerikusia daukaten gaiei buruzko hitzaldiak, dokumentalak etab. ere eskaintzen dituzte.

### Elkarlanean

Edozein elkarlan edota proposamen begi onez hartzen dute. Esate baterako, ikastetxeekin lankidetzan aritzen dira: Iluntzarrera joaten dira Gabonetan, jaiotza ipintzera, eta otsail-martxoan txitxiburduntzia antolatzen dute. «Ikastetxe guztiei deialdia egiten diegu, eta eguraldia lagun dugunean, oso arrakastatsuak izaten dira. Abixadan antolatzen ere parte hartzen genuen». Besteak beste, Urmugaren Urtanta ekitaldiagaz bat egin zuten uztailaren 25ean. Bermeoko Sollube 707 eta Busturiko Mape taldeekin elkarlanean aritu ziren hiru ibilbideen artean Busturialdekoa prestatzen.

Andra Mari eta San Roke jaietan herrigunean mendi jardueraren bat egitea ez da erraza. San Lorentzo jaietan Lurgorriko Jai Batzordeak antolatzen du, eta horrelako egitasmoen garrantzia azpimarratu dute udalerriko mendi taldekoek: «Mimo handiz egiten den mendi irteera da, parte hartze handia edukitzen du, umeak ere egoten dira... Eskualdeko herri txiki askotan antolatzen dituzte jaien egitarauaren barruan, eta gauza polita da, jaiak hori ere badira. Ostean sortzen den giroa ere polita izaten da. Mantentzeko moduko ohitura da». ●

# «Orain arte egindakoa berbaz islatzeko eta eskerrak emateko unea izango da»

**ALLENDE SALAZAR HERRI IKASTETXEA**
Pregoilaria

«Gernikako aniztasunaren ispilu» da Allende Salazar Herri Ikastetxea, eta 50. urteurrena ospatzen ari diren honetan, Andra Mari eta San Roke jaietan pregoilari izango da ikastetxeko komunitatea.

Mende erdia ez da urtero betetzen, eta aurten Allende Salazar Herri Ikastetxearen 50. urtemuga hainbat ospakizunekin jantzi badute ere, maiatzean egindako «jaialdi mundiala» izan zen urteurren ospakizun nagusia. Ospakizuna herriarentzat izatea zuten helburu, «ez bakarrik Allendeko komunitatearentzat». Allende Gernika-Lumon «badela eragile bat» adierazi nahi izan dute 50. urteurrenean. Zentzu horretan, jai batzordeak Allendek egin duen esfortzu hori ikustea eta pregoilari izateko proposatzea begi onez ikusi dute, eta poztu egin dira: «Ohorea da». Eskola komunitatearentzat «aukera bat» da, berriro ere herriari eskola publikoa erdigunean ipintzeko: «Eta 50 urtetan hemen gaudela eta hemen jarraituko dugula esateko».

Otsailean bertso artean piztu zituzten urteurren bereziaren kandelak, lehenengoz. Apirilean, 100 lagun baino gehiago batu ziren mendi martxan, pausoz pauso, hamarkadaz hamarkada ikastetxeak egindako ibilbidea oroituz. Goi Zale Mendi Taldeagaz eta Berbalagunegaz elkarlanean osatu zuten irteera. Gero, hiru hitzordugaz jantzi zuten maiatza. Ia 700 ikasle eta irakasle ohi bildu ziren afaritan, maiatzaren 10ean. Bi egun beranduago, umeentzako gonbidatu kuttunekin ospatu zuten urtemuga; Porrotx eta Marimototsen ikuskizunagaz gozatu zuten 1.100 bat herritarrek, Jai Alain. Egun guztiko egitarauari helduta, miatzaren 18koa izan zen ospakizun jendetsuena.



Borja Agirre, Nahia Idoiaga eta Aritz Zearra. AINTZINA MONASTERIO MAGUREGI

Ezustean etorri zaie urtemuga oparia, aitortza. Pregoilari izatea «ez zuten espero». Nahia Idoiaga Guraso Elkarteko presidenteak, Aritz Zearra zuzendariak eta Borja Agirre ikasketa buruak esan bezala, urteurren ekitaldien «amaiera bikaina» izango da, helburua «borobilduko» duena: «Jai batzordetik gure hautagaitza proposatu ahalko zela komentatu ziguten; poztasunez hartu genuen. Kanpotik etorritako zerbait denez, ez genuen imajinatzen. Ikasturtean zehar 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin ditugu. Maiatzean egin zen jaialdiagaz borobildu nahi genuen urteurrena, eta hau urteurren ekitaldien amaiera izango da. Gure helburua da Allendeko komunitatea Gernika erdigunean kokatzea, herrira zabaltzea. Gernikako zutabe moduan ikusten gara, hainbat familia, ikasle, langile... pasatu direlako hemendik 50 urteotan. Gure helburua borobiltzea suposatzen du honek; eskola dagoen lekutik, Gernika erdigunera ateratzea. Bost hamarkada daramatzagu Gernikako eskola publiko handia eta indartsua izaten. Gernikako familia, ume gehienak biltzen ditu eskolak. Gernikan zutabe izan den eta baden erakunde publiko batek pregoia botatzea pozgarria da».

Maiatzeko jaialdia bozgorailu handia izan zen eskola komunitatearentzat, eta abuztuaren 14an ere jendetza edukiko dute aurrean, euren berbak adi-adi entzuten. Pregoian aldarrikapen mezuak zabaldu, eta esker ona adieraziko diete gernika-lumotarrei. Ikasturtean zehar azpimarratu dituzten «bizpahiru ideiei indarra» eman gura diete, eta «argi» utziko dute «publikoaren garaia» dela. Eskola publikoak 800 ikasle dituela azpimarratu dute: «Horri begirada berezi bat zor zaiola, zor diogula, uste dugu, eta hori aldarrikatzeko momentua izango da. Gernikako aniztasunari erantzun inklusiboa emateko momentua da; hori ere aldarrikatuko dugu. Tarte horretan orain arte egindakoa berbaz islatzea da asmoa, baita herriari esker ona adieraztea ere. Jaialdira eta bestelako ospakizunetara hurbildutakoei eskerrak eman, eta horiek egiten lagundu diguten guztiei eskertzeko aukera izango da. Allendeko erealitatea islatzeko ere izango da, eta Allendeko ehunka eta milaka familiak eta ikasleek euren boza hartzea. 50 urte egin ditugu, orain arte ispilu izan gara, eta izaten jarraitzen nahi dugu. Eragile eta zutabe izaten jarraitu nahi dugu. Eta hori ere aldarrikatuko dugu».

Egindako bidea gogoratu, eta etorkizunera begira jarriko dira: «Iraganagatik gaude 50. urteurreneko txupina botatzen, baita etorkizunagatik ere. Hor jartzen dugu ilusioa. Umeak hezten, umeak balioetan oinarritzen... herriari egin ahal diogun onura horri begira egongo gara beti».

Izaera herrikoia, publikoa eta irekia duen hezkuntza proiektua errotuta dago herrian, eta 50 urtez eutsi diete balore horiei. «Eskola herriko aniztasunaren ispilu gardena izan da, belaunaldiz belaunaldi. Ikasleak justiziaren, berdintasunaren eta euskaltzaletasunaren baloreak oinarri hartuta hazi dira; zutabe horiekiko konpromisoak eta ardurak bere horretan diraute. Gure kulturan, inklusioan eta kohesioan sustraitutako gizartea eraikitzea da eskola komunitateak duen helburu nagusia». *Danona* lelopean kandelei putz eginez bete ditu Allendek 50 urte, eta aurrerantzean ere denena izateko irribarretsu jarraituko du ikasten eta irakasten. ●



EGUNEZ EGUN

## ABUZTUAK 14, BEZPERADA

**10:00.** XVI. Nazioarteko Zesta Punta Txapelketako finalak, Jai Alai frontoian.
**14:00.** XVI. Nazioarteko Zesta Punta Txapelketako sari banaketa.
**19:30.** Salbea. Elizkizuna, Andra Mari elizan.
**Ondoren.** Hilarion Eslavaren Salbea, Andra Mari Koralaren eskutik.
**20:45.** Pregoia, Goizale Mendi Taldea eta Allende Salazar Eskola Publikoaren eskutik.
**20:45.** Erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira, Gernika Rugby Taldearen eskutik. Ibilbidea: Pasealekua, San Juan Ibarra eta Merkatu plaza.
**21:00.** Xaibor disko festa ibiltari mundiala, Arrienetik Saraspe plazara.
**22:00- 01:30.** Alkoholaren arriskua prebenitzeko gunea Saraspen.
**22:00.** Kontzertuak, Pasealekuan: Mikosis, Addar eta Urrats.
**22:30.** Kontzertuak, San Juan Ibarran: Los Deltonos.

## ABUZTUAK 15, ANDRA MARI EGUNA

**11:00.** Diana Gazteak taldeko txistulari eta Busturialdeko Gaiteruen eskutik.
**12:30.** Meza nagusia, Eskolakristo Musika Alkarteagaz.
**Ostean.** Erregelak Elai Alai Dantza Taldearen eskutik, eta ohiko kopaua.
**12:30.** Gargantua, Adolfo Urioste kalean.
**13:00.** Euskal kanten kalejira, Urdaibai kantagunearen eta Arrano elkartearen eskutik.
**16:30.** XLII. Goitibehera Jaitsiera, Lumotik Merkurioraino.
**17:30.** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira, Gernika Rugby Taldearen eskutik. Ibilbidea: Pasealekua, Juan Kaltzada, 8 de Enero, San Juan eta Artekalea.
**17:30.** Umeen txokoa, Merkatu plazan, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik.
**19:00.** Bertsolariak Seber Altube Auditorioan, Lilibertsoren eskutik: Julio Soto Ezkurdia, Alaia Martin Etxebeste, Nerea Ibarzabal Salegi eta Koldo Gezuraga Seijido. Gai jartzailea: Ander Elortegi Garatea.
**22:00.** Kontzertuak, Pasealekuan: Bala, Pi L.T. eta Mugi Panderoa.

## ABUZTUAK 16, SAN ROKE

**11:00.** Diana, Gazteak taldeko txistulari eta Busturialdeko Gaiteruen eskutik.
**11:00.** Txinbera lehiaketa herriko umeentzat, ipar saihesbidearen azpian. 13 urtetik beherakoentzako Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaile elkarteak antolatuta.
**11:00.** Meza nagusia, Andra Maria elizan, Eskolakristo Musika Alkartearen eskutik.
**Ostean.** Uriko aurreskua, Elai Alai Dantza Taldearen eskutik.
**Ondoren.** Kopaua.
**12:00.** Kalejira, EinGo Taldearen eskutik.
**12:00.** Apar Jaia Foru plazan, Urdaibai Eskola Elkarteak antolatuta.
**12:30.** Gargantua, San Juan Ibarran.
**12:30.** Gernikako Garrafie eta Txistorra Dastaketa, Pasealekuan, Gure Garrafie elkarteak antolatuta.
**13:00.** Ikurriñari omenaldia, eta Euskal kanten kalejira, Urdaibai Kantagunea eta Arrano Kultur Elkartearen eskutik.
**14:00.** XXI. Sukalki Txapelketa. Izen-ematea kazolak aurkezteagaz batera egin beharko da Merkurio inguruan, 12:30etik 13:30era bitartean.
**15:00.** Bazkari herrikoia.
**Bazkalostean.** Lilibertso taldeko bertsolari gazteak eta Trikilariak kopla kantari maharik mahai.
**17:30.** Umeen Txokoa, Merkatu plazan, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik.
**17:30.** Gazteen Txokoa, Futbolin Txapelketa eta Apar Jai Berezia, Foruen plazan, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik.
**18:00.** Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira, Gernika Rugby Taldearen eskutik. Ibilbidea: Pasealekua, Juan Kaltzada, 8 de Enero, San Juan eta Artekale.
**19:30.** Kontzertuak, San Juan Ibarran: Sepelio eta Amann & The Wayward Sons.
**20:00.** Larraindantza Herrikoia, Juan Kaltzada Kalean zehar, Elai Alai Dantza Taldea eta Busturialdeko Gaiteroen eskutik.
**21:15.** Esku pilota partiduak, Santanape frontoian.
**22:00.** Kalejira Hamarru Elektrotxaranga.
**22:30.** Su artifizialen ikuskizuna iparraldeko saihesbidetik, Valecea Pirotecniaren eskutik.
**22:30.** Kontzertuak, Pasealekuan: Zea Mays eta J Martina.

## ABUZTUAK 17, SAN ROKETXU

**12:00.** Umeen txokoa eta apar jaia, Foru plazan, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik.
**12:30.** Kittu taldearen kalejira.
**12:30.** Gargantua, Adolfo Urioste kalean.
**19:00.** Urdaibai Eskola Elkarteak antolatuta, San Roketxuko mozorroen desfilea, Juan Calzada kalean. Izen-ematea 18:30ean, Merkurio iturrian.
**20:00.** *Wellcome* kale antzerkia, San Juan Ibarra plazan.
**20:30.** Kontzertuak, Pasealekuan: Zutik, XSakara eta Zazpizar erromeria.
**04:00.** Kulero, faja, tanga eta kaltzontzilo lasterketa, Merkurio iturrian.

## ABUZTUAK 18, SAN ROKETXUTXU

**11:00.** Gernikako Arku Tiroketa Taldearen erakustaldia, Merkatu plazan.
**12:00.** Umeen txokoa eta apar jaia, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik, Foru plazan.
**12:30.** Gargantua, San Juan Ibarran.
**12:30.** Kittu taldearen kalejira. Ibilbidea: Artekalea, San Juan Ibarra, Merkatu plaza, Barrenkalea eta Juan Calzada.
**17:00.** Jubilatuen briska eta mus txapelketako finalak. Ostean, sari banaketa, txokolatea eta Maran.
**17:30.** Umeen txokoa, Merkatu plazan, Urdaibai Eskola Elkartearen eskutik.
**17:30.** Urdaibai Eskola Elkarteak antolatuta, Foru plazan, gazteen txokoa.
**18:00.** Euskadiko 3. mailako aizkolari txapelketako finala, Merkatu plazan.
**18:00.** Gernika Klubaren aurkezpen partidua, Urbietan.
**19:30.** Urdaibai Eskola Elkarteak antolatuta, txokolatada, Merkatu plazan.
**20:00.** Xaibor disko festa.
**22:30.** Xaibor helduentzako.







*ongi etorri*

# Gernikeko Jaietara!

## GU DANON PARTEZ, ONDO-ONDO PASEU!


picasso
Ondo pasa !
GERNIKA-LUMO
94-605 70 34

ARRANO
• Bariku eta zapatu iluntzeetan:
HANBURGESAK · PIZZAK ·
SANDWITXAK · RAZIOAK

Arrien
KAFETEGIA
Eriabarrena kalea, 2
lapikoko platerak
razioak · bokatak
pintxo bereziak ...
ondo paseu jaixetan!

Restaurante SASoie
SASoie JATETXEA
Eriabarrena, 2 behea
Gernika-Lumo
94-612 68 09
restaurantesasoie.com

TABERNA
AUZOKOA
DISFRUTATU JAIAK!
GERNIKA-LUMO
Tel. 94 625 16 66

ONDO PASEU JAIXETAN!
Azules
gernika
Pablo Picasso 7 kalea
946 035 531

aterpe
Taberna
Fray Martín de Murua, 1
Tel. 94 625 74 84
GERNIKA

BAKE-EDER
PABLO PICASSO 11,GERNIKA
692 71 99 34

Basati
Gernika
Gourmet hanburgesak
Kokteleria
@basatigernika

HOTELA eta JATETXEA
BOLIÑA
Barrenkale,3. Gernika-Lumo
Tel./Faxa: 94-625 03 00
recepcion@hotelbolina.net

IPAR TABERNIE
•Plater konbinatuak
•Bokatak
Bekoibarra, 35
· Gernika-Lumo
94-627 13 50

MADARIAGA
Industria kalea, 8
Tlfnoa.: 94-625 64 65
GERNIKA-LUMO

SAKONE
Aita Luis Villasante, 7 Gernika
94 627 04 19
www.sakone.net

BAR CASERIO
Ongi etorri!
Artekalea, 9,
Gernika-Lumo
94-625 58 75

Zallo Barri
Topera jaietan!
Juan Calzada, 79 GERNIKA-LUMO
94-625 18 00 · faxa: 94-625 18 00
www.zallobarri.com

# «Herrimina izan da aurten parte hartzera bultzatu nauen akuilua»

**EKAIN MONGE**
Jaietako kartel lehiaketaren irabazlea



Ekain Monge gernika-lumotarra, kartel irabazlea eskutan duela. A.U.A.

Irabazteko asmo barik parte hartu du Ekain Mongek bigarrenez Gernikako jaietako kartel lehiaketan. Atzerrian bizi zela bidali zuen bere estilo propioari eusten dion 'Bihotza' kartela, eta garaipena lortu du.

**Zer suposatzen du zuretzat Andra Mari eta San Roke jaietako kartel lehiaketa irabazteak?**
Denetatik sentitzen dut; ohorea da epaimahaikideei neure kartela gustatu izan zaiela jakitea. Jaietako kartel lehiaketak umea nintzenetik erakarri izan nau; diseinua, posterrak eta parekoak beti gustatu izan zaizkit eta, alde horretatik, herriko jaien irudi izateko aurkeztu diren denetatik nire kartela onena dela ebatzi izana poz handiz bizi dut.
**Irabaztea espero al zenuen?**
Inondik inora, ez. Maila handiko lana egin dudala uste arren, jakitun izan behar naiz epaimahai bati gustatzea ez dela erraza.
**Zerk bultzatu zintuen parte hartzera?**
Iaz parte hartu nuen, estreinakoz. Azken hilabeteotan atzerrian bizitzen egon naiz, eta, kartela, kanpoan nintzela bidali nuen. Agian, herrimina izan da aurten parte hartzera bultzatu nauen akuilua.
***Bihotza* izena dauka kartel irabazleak. Deskribatu zenezake?**
Lehen zirriborroetan konposizioari bihotz antza sumatzen nion; horrexegatik erabaki nuen kartela hala izendatzea. Beti izan dut karga sentimentala duten elementuekin lan egiteko joera; bihotz anatomikoak nire ekoizpenetan etengabe agertu dira. Prozesuak aurrera egin ahala, elementu batzuk aldatu nituen, baina, hasierako pieza bihotza zenez, izenari eutsi nion.
**Zelako sormen prozesua izan da?**
Lasaia eta erosoa, irabazteko esperantza barik aritu bainintzen. Azken urteetako kartel irabazleei erreparatuz gero, margolaritzagaz eta ilustrazioagaz lotuta egon dira gehienak; nire esparru artistikoak zerikusi handiagoa du diseinu grafikoagaz edo argazkilaritzagaz. Hasieratik, neure estilora moldatutako diseinua bilatu nuen: minimalista, modernoa, kolore lauak dituena. Ez da plazaratu ohi den estilorik ohikoena.
**Nondik datorkizu ilustraziorako eta diseinurako zaletasuna?**
Haurra nintzenetik, argazki kameragaz gogoratzen dut neure burua; diseinu grafikoko lehen lan txikitxoez ere oroitzen naiz. Diseinua, bestelako materialekin eta prozesuekin bada ere, betidanik egon da presente nire inguruan. Ikasketei dagokienez, alde humanistikoa aukeratu arren, mailaz maila beti hautatu izan ditut ikus-entzunezkoekin edo diseinuagaz loturiko langaiak. Diseinua ez da nire irtenbide laborala, baina bai gehien gozatzen dudan zaletasunetako bat.

> «Lehen zirriborroetan konposizioari bihotz antza sumatzen nien, eta horrexegatik erabaki nuen kartela hala izendatzea»

**Eduki al duzu gainontzeko kartelak ikuskatzeko tarterik?**
Azken hiruzpalau urteetakoak beti ikusi izan ditut, baina aurtengoak ez. Edozelan ere, kalitate maila urterokoa besteko handia izan da, seguru. Sortzaile apartak aurkezten dira kartel lehiaketara.
**Zein esanahi dute Gernikako jaiek zeuretzat?**
Esangura berezia daukate. Herritar batzuei beste batzuei baino gehiago mugiarazten dizkiete barrenak; nik intentsitate handiz bizi ditut. Eguteginn gorriz markatuta eduki ohi dudan astea da, gainera, neure urtebetetze ospakizunagaz bat egiten duena. Beraz, udaren gailurretako bat dira niretzat: egun seinalatuak.
**Jaiekin lotutako estreinako oroitzapena gogoratzen al duzu?**
Une konkretuak barik, lehen sentsazioak nabarmenduko nituzke: uda, abuztuaren beroa, egun eguzkitsu eta luzeak. Kamiseta zuriak eta jaietako zapiak datorzkit burura, barraketako argiteria eta lagunekin goitibehera lasterketa ikustea. Une horiek gogoratzea eta transmititzen didaten poza da niretzat inportanteena.
**Eguneko egitarauaren zalea zala, ala gautiarragoa?**
Biek xarma propioa dute, oso bestelakoak dira. Nerabezarora jauzia egitean, banpiroen parekoak ginen: gauez baino ez ginen kaleratzen. Urteen poderioz, egunean zehar egiten diren egitasmoak baloratzen hasi ginen. Horiek ere gustuko ditut.
**Ba al dago bereziki gustuko duzun edota modu intentsoan bizi duzun ekimenen bat?**
Intentsitate aldetik, txosnetako giroagaz geratuko nintzateke. Hainbat saltsatan sartuta nabil, eta ardurak edukitzen ditut txosnetan. Horrek asko izaten du intentsotik, kudeaketari dagokionez. Bezperada eguneko kuadrillen bazkaria ere maite dut: beti ederto pasatzen dut, eta kuadrilla barruan urtean zehar gutxiago harremantzen naizen lagunekin egoteko une aproposa da.
**Jai idealak izateko, zer botatzen duzu faltan?**
Batetik, iruditzen zait beste herri askotan lotsagabeagoak direla. Adibidez, lehen galtzontzillo eta kulero lasterketa egiten zen. Beste herri askotako mozorro egunean, kuadrillek karrozak prestatzen dituzte, taldean apaintzen dira, eta bestelako batasunez disfrutatzen dute; hori ez da gertatzen geurean. Bestetik, txosnekiko atxikidura eza sumatzen dut: txosnak eta herri mugimendua ezerezetik sortzen diren ustea dago. Errealitate hori aldatu beharko genuke, txosnetan urtero ikusten baititut tabernetan hainbeste ematen ez diren egoerak edota jarrerak. ●











# Busturialdeko ZERBITZUEN GIDA HITZAren webgunean!




## busturialdea.hitza.eus

**Negozio bat daukazu eta ikusgarritasuna eman nahi diozu?** Iragarri zaitez Hitzako webgunean!
**Informazio gehiago**rako idatzi edo deitu:

***publibusturia@hitza.eus*** · **647 31 97 77**

# OHOLTZA LEHERTZEKO ARDURA DUTE

Dezibelek gora egin eta Pasealekua dantzan jarriko dute aurtengo jaietan ere bai. Herriko zein Euskal Herriko hainbat talde igoko dira oholtzara, baina etxekoek izango dute sua pizteko ardura. Mikosis taldekoek estreinatuko dute oholtza, eta ostean ariko dira Addar eta Urrats erromeria. Etxeko agertokian ariko dira Erreten taldekoak ere bai, Andra Mari egunez, eta euren ostean igoko dira Bala, Pi L.T. eta Mugi Panderoa. Hamarru elektrotxarangak, Zea Maysek, J Martinak eta Xaukena Xaukek hankaz gora jarriko dute Pasealekua sanrokeetan, eta azken gaua Zutik erromeriak, XSakarak eta Zazpizar erromeriak girotuko dute.

## Rock doinuek berotuko dute gaua



Ohiko rock gordina du oinarrian Bermeoko Addar taldeak, melodia landua eta gitarren presentzia nabarmena baita euren lanetan: *Sugarra, Errautsak* eta *Gordinak*. Kantu sorta berria aurkezten ari dira, eta ekainean sareratu zuten eta identitateaz eta bizitzako norabideaz hausnartzen duen *Ezin ulertu* kantua bezalako doinu berriak joko dituzte Bezperadan. T.ARRIAGA

## Jaien sua piztuko dute etxean



Post-punketik eta musika alternatibotik edaten duen talde berria da Mikosis, 2021ean lau neskek sortutako proiektu batetik jaiotako talde gernikarra. *Galdute* lan berria aurkeztu zuten maiatzean, baina argi dute non ariko diren: etxeko jai nagusien egun handian ariko dira, jaietan ariko diren estreinako aldian. T.ARRIAGA

## Gernikako eszenatokira ere igoko dira



Uztailean Madrilgo Madcool festibalean eta Iruñeako San Ferminetan egon ostean, Andra Mari eguna astintzera datoz Pi. L.T. taldekoak. *Garai honetan* da euren azken apustua, taldea desegin eta hogei urtera grabatutakoa. Sortzeko eta esateko gogotsu itzuli dira eta hori erakutsiko dute Andra Mari egunez. EIDER ITURRIAGA















# ‘Negu gorri’, plaza beroan



Negua du ardatz J.Martinaren bigarren lanak, *Negu gorri*-k. Hotza, baina, beroagaz uztartuko dute, kanta dantzagarrien gordeleku baita lana. Politikaren eta artearen inguruan mugituko dira artista zein ikusleak. Z.MARTIKORENA

# Adorea, kemena, eta kuraia



Rockaren askotariko ertzetan erosotasunez mugitzen den eta estilo propioa daukan taldeak San Roke egunean beteko du Gernika-Lumoko jai nagusietako oholtza. Zea Maysek jaiaren elektrizitate enbata ekarriko du udalerrira, eta 25 urteko ibilbidea aitortuko diote entzuleek. ZEA MAYS

# Hamaika kolore eta doinu



Bigarrenez jarraian, etxean, lagunen aurrean egongo dira Zazpizar erromeriakoak. Aurten, mozorroz eta kolorez inguratuta, hamaika koloreko doinuak zabalduko dituzte, Pasealekua dantzan jartzeko. ZAZPIZAR

# Hip-hoparen olatuan, basati



Industria musikalaren erritmoetatik kanpo, kalean hazi eta hezitakoa da Xabi Gutiez bermeotarra, XSakara proiektuaren sortzailea. Barrenetik sortzen ditu kantuak, eta horren erakusle da *Ilargiaren Semea*. Lan basati bezain librea erakutsiko du Gernikan. GRINDIN GUTARRAK



















BARRUTIALDE
INSTITUTUA
zure etorkizuna gara!
Lanbide heziketa: Hasierako Lanbide Heziketa, erdi mailak eta goi mailak.
DBH eta Batxilergoa.
ZIG. Zeregin ikaskuntza gela.
www.barrutialde.eus
944287829

IDURGO
maestros cuberteros
CAPEANS
PORCELANA
ESPAÑA
OUTLET
MAHAI-TRESNAK, BAXERAK, KRISTALERIA
SUKALDEKO ETA ETXEKO TRESNERIA
TXOKOENTZAKO TRESNERIA
FABRIKAKO PREZIOAK
%60 ARTEKO DESKONTUAK
Plaza Saraspe, 3- Tel. 94 625 03 05 GERNIKA

AMURRIO
BITXITEGIA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu
San Roke, 3 Tel.: 94 625 09 28 GERNIKA

Zenbat denbora ez duzula zure entzumena egiaztatu?
cues
Especialistas en Audiología
Doako proba
50%
%50eko deskontua zure audifonoetan*
Bezero berrientzako eskaintza zabaltzen ari gara.
Iparragirre Kalea, 16 - Gernika
946 963 135 - 650 41 91 91
*Zentroak kontsultatu beharreko ereduak.
Ezin da beste promozio batzuekin konbinatu R.P.S. nº100/21
Miriam Azkue

GD
GONZALEZ DEKORAZIOA
San Juan kalea, 11 GERNIKA-LUMO 94-625 04 82
proyectos@gonzalezdecoracion.es
Ondo ibili jaietan!





Iazko Kukaña Txapelketak ere jendetza erakarri zuen Errenteriko zubi inguruetara. MIKEL REINA BARROS

# Errenteriarren egun berezienak

● Jai Batzorderik izan ez denez, Gernika-Lumoko Udaletik prestatu dituzte San Bartolome jaiak aurten.



Errenteriako jaiek ez dute euren esentzia galdu, eta aurten jai batzordearen eskutik antolatu ez badituzte ere, udalak ohiko jardueren aldeko apustua egin du, eta hutsik egin ezin duten jarduerak mantentzea erabaki du.

Abuztua San Lorentzo jaiekin hasi, eta Andra Mari eta San Roke jaien ostean, gernika-lumotarrek San Bartolome jaietarako indarrak gordetzen dituzte. Hala, hilabetea hasi modura, jai giroan amaitzen dute ume, gazte zein nagusiek. Hain zuzen ere, lau egunetan guztientzako ekintzak egongo dira, denek ala denek aspertzeko astirik ez baitute izango.

Iaz modura, Laida eta Errenteria arteko piragua zeharkaldiagaz hasiko dira sanbartolomeak, eta Kukaña Txapelketak hartuko dio lekukoa iluntze partean.

Abuztuaren 23an ere arratsaldean hasiko dituzte jarduerak. 17:00etan Mus Txapelketa jokatuko dute, baina ordu erdi lehenago izena eman beharko da. Parte hartzeko izen ematea 20 eurotan ipini dute. Sariei dagokienez, lehenengo lau bikote sailkatuentzako sariak egongo dira. Txapeldunek izen emateetatik bildutakoaren %50a jasoko dute, txapelekin batera. Bigarrenek izen emateetatik lortzen dutenaren %25, hirugarrenek %15 eta laugarrenek %10.

### Txupina eta erromeria

Jaiak hilaren 22an hasiko badituzte ere, San Bartolome bezperan 20:00etan botako dute jaien hasiera iragartzen duen txupina. Jarraian, musikaz beteko dira auzoko bazter guztiak; eta, Sua taldearen erromeriagaz dantzarako aitzakiarik ez dute edukiko herritarrek.

San Bartolome egunez, berriz, dianagaz esnatuko da auzoa, 10:00etan. Meza ostean, ostera, trikitilarien txanda izango da, eta 13:00etan hasiko dute Elai Alai Dantzari Taldekoek euren emanaldia. Familian bazkaldu ondoren, klasikoetan klasikoena den San Bartolome Saria lehiatuko dute. Iluntze eta gau partea girotzeko eta berotzeko ardura, aldiz, Xaiborrek hartuko du. Bere musika errepertorio zabalagaz dantzan jarriko ditu ume, gazte zein helduak.

Jaietako azkenengo egunean, domekan, eguerdiko poteoa alaitzeko trikitilariak ibiliko dira txokorik txoko. Arratsaldean, umeentzako puzgarriak ipiniko dituzte, salto eta brinko nekatu arte ibiltzeko. Hala, aurtengo San Bartolome jaiak dj saioarekin agurtuko dituzte. Oraingo honetan, Dj Alex & Jon ariko dira aurtengo udako kantuak zein garai batekoak jartzen, errenteriar denen gozamenerako. ●

**EGITARAUA:**

**Abuztuak 22, eguena**
**17:00.** VII. Laida-Errenteria Piragua Zeharkaldia.
**20:00.** Kukaña eta piraguen harrera.

**Abuztuak 23, barikua**
**17:00.** Mus Txapelketa.
**19:30.** Errenteriako VI. Estropada.
**20:00.** Txupinazoa.
**20:00.** Sua erromeria.

**Abuztuak 24, zapatua.**
**10:00.** Diana.
**12:00.** Meza nagusia.
**Ostean.** Kopaua.
**13:00.** Trikitixa kalejira.
**13:00.** Euskal dantzak, Elai Alai Dantzari Taldearen eskutik, eta erraldoiak.
**16:00.** 72. Txirrindulari Lasterketa.
**20:30.** Xaibor disko festa show.

**Abuztuak 25, domeka.**
**13:00.** Trikitixa kalejira.
**18:00.** Puzgarriak.
**20:00.** Dj Alex & Jon.


Elantxobe Arraun Elkarteko arraunlariak, iazko estropadan. MIKEL REINA BARROS

# Jaietan ere, bertoko kirolak sustatzeko hitzorduak

San Bartolome jaietako irudi esanguratsuenetakoa da kukaña. Urtez urte jendetza erakartzen du Errenteriako Kukaña Txapelketak, baina azken urteotan estropada eta itsas zeharkaldiagaz eskutik helduta pasatzen ditu jaiak. Izan ere, bertoko kirolak, eta zehazki uretakoak, sustatzen dituzten jaiak dira sanbartolomeak.

Hilaren 22an lehiatuko dute Kukaña Txapelketa, 20:00etan hasita, baina parte hartu gura dutenek hasi baino hamar minutu lehenago izena eman beharko dute. 14 urtetik aurrerakoek parte hartu ahalko dute, eta hiru sari banatuko dituzte: 100 euro, 80 euro eta 50 eurokoak.

Kukañaren proba hori hasi aurretik, Laida eta Errenteria arteko piragua zeharkaldia egingo dute. Itsasadarraren edertasunaz bertatik bertara gozatzeko aukera paregabea eskaintzen duen jarduera izaten da.

Parte hartzeko beharrezkoa da Twente tabernan izena ematea. Piragua norberak eroanez gero, 15 euro ordaindu beharko dira, eta piragua alokatu behar dutenek 25 euro ordaindu beharko dituzte. Autobusez joango dira Laidara, 17:00etan Idigatik irtenda. Zeharkaldia begirale batzuek gidatuta egingo dute, beste behin.

Biharamunean, inguruko arraun elkarteetako kideek bereganatuko dute arreta. Seigarrenez lehiatuko dute Errenteriako Estropada, harrobiak sendo daudela erakutsiz. Iaz, esate baterako, Mundakako, Elantxobeko eta Lekeitioko Isuntzako arraunlari gaztetxoak aritu ziren, eta lehia sanoan, arraunaren balioak agerian utzi zituzten. ●







TORREZURI
Egoitza eta Eguneko Zentroa
ZERBITZU BIAK ALDUNDIAGAZ HITZARTUTA
EZ DUGU EZ LOTURA FISIKORIK EZ KIMIKORIK ERABILTZEN PERTSONAK ZAINTZEKO
Grupo Duintzen
Aske Libre
Carlos Gangoiti, 22
GERNIKA-LUMO
94-625 82 88
www.torrezuri.com

Pertsonak Pertsonak Zaintzen
Zure Alde
Akonpainamenduak
Zainketak etxean
Pertsonal Internoa
eta askoz gehiago...
24/7
Ocho de Enero, 1 GERNIKA
zurealde@zurealde.com - T. 611 252 461
www.zurealde.com

JOSE ANTONIO GONDRA URBERUAGA
agente esklusiboa E0189B95756748
GONDRAGERNIKA, S.L.
ZURICH®
Aseguruak
94-625 44 50
gondragernika@zurichagente.es
San Juan, 25 behea
Gernika-Lumo

Gure herriko produktuak.

PINILLA

Frutas PINILLA, S.L.

Banaketak, Busturialdean eta Lea-Artibain!

DENDA: San Bartolome, 1
94-625 84 05
BILTEGIA:
Txaporta industrialdea, 3
94-625 77 06
GERNIKA-LUMO
frutaspinilla@gmail.com

FRUTAS ISABEL

Juan Kaltzada, 12
Gernika-Lumo
94-625 13 48

ven 1948 ardandegiak

Vinos Embotellados del Norte,S.A.
Goiko Ibarra 19 - 48300 GERNIKA
Tel.: 94-625 03 63 · Mug.:615004738